

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

2022ko egonkortzeko lan-eskaintza publikoari dagozkion lan-kontratuko 3 lanposturen oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea

Alkatetzaren abenduaren 9ko 232/2022 Ebazpenaren bidez, Arraia-Maeztuko Udaleko lan-kontratuko langileen plazak betetzeko 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan (enplegua finkatzeko eskaintza berezia) jasotako hautaketa-prozesuetarako deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak eta espezifikoak onartu dira.

Oinarri orokorrak eta espezifikoak oso-osorik ikusgai daude udalaren egoitza elektronikoan, https://udalenegoitza.araba.eus/portal/entidades.do?ent_id=30&idioma=3, udalaren webgunean eta udal honen iragarki-taulan.

Hona hemen oinarrien testu osoa,

I. ERANSKINA

ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO HAUTAKETA PROZESUAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRI OROKORRAK, ABENDUAREN 28ko 20/2021 LEGEAREN 6. eta 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOAK

1- Oinarrien xedea

Oinarri hauen xedea da hautaketa-prozesuak arautuko dituzten arau orokorrak ezartzea, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko. Lege hori Arraia-Maeztuko Udalean enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa da, Arabako Foru Aldundiaren kudeaketa-gomendioa formalizatzeko hitzarmenaren arabera egiten ari dena.

Hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak dagozkien deialdietako oinarri espezifikoetan arautuko dira, baina gutxienez honako hauek jaso beharko dituzte:

- Deitutako plazen identifikazioa, kopurua eta lotutako lanpostuak, eta, hala badagokio, sartzeko txanda.
- Langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasaren zenbatekoa.
- Deitutako plazei lotutako lanpostuak eskuratzeko baldintzak: sartzeko titulazioa, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, baita sartzeko beste baldintza batzuk ere (hizkuntzak, informatikako ezagutzak, etab.).
- Merezimendu baloragarriak eta horien baremoa.
- Emakumeen lehentasun-klausula aplikatze-ari edo ez aplikatzeari buruzko aurreikuspena.

20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiari honako araudi hau aplikatuko zaio:

- Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Berritzeko Neurriei buruzkoa.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa
- 7/2021 Legea, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioi kidego eta eskalena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioei aplikagarri zaizkien guztian.
- Osagarri gisa, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartutako Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzupeko langileak sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak hornitzeko eta lanbide-sustapena egiteko Araudi Orokorra.
- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzailekoa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerakoa.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
- 2/2004 Legea, otsailaren 25koa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Dokumentuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa.
- Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testuategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- Oinarri arautzaile hauek.

20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesua lehiaketa-sistemaren arabera artikulatuko da.

Prozesu horretan txanda bakarra aurreikusten da: librea.

2- Parte hartzeko baldintza orokorrak

Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozeduran parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Europar Batasuneko estatu kideren bateko edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzeko den beste estaturen bateko nazionalitatea edo nazionalitate espainiarra izatea, Europako Erkidegoa eratzeke Itunean definituta dagoen moduan.
- b) Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, betiere Zuzenbidetik bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta bi ezkontideak Zuzenbidetik bananduta ez badaude, ondorengoak 21 urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak badira eta beren kontura bizi badira (5/2015 LED, 57. artikulua).
- c) Aurretiazko eskaera egitea.
- d) Eskuratu nahi den eskalako edo lan-kategoriako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- e) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

f) Diziplina-espeditentaren bidez Administrazio Publikoetako edo Autonomia Erkidegoetako Erakunde Konstituzional edo Estatutarioetako edozein zerbitzutik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen kidego edo eskaletara edo lan-kontratuko langileen kategorietara iristeko desgaiakuntza absolutu edo berezia ez izatea.

g) Beste estatu bateko herritarra izanez gero, ezgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikora iristea eragozten duen diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea.

h) Eskatutako titulazioa izatea, edo titulazio hori jasotzeko eskubideak ordainduta izatea. Titulazio hori berriazko oinarrietan adieraziko da. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztatzea eduki beharko da.

i) Atzerrian lortutako titulazioa duten hautagaiek dagokion baliozkotzea edo homologazioa egiaztatzen duen egiaztatzea dutela egiaztatu beharko dute.

j) Hautaketa-prozesuaren barruan lanposturako (lan-kontratuko langileen kasuan) edo plazari lotutako lanposturako (funtzionarioentzat gordetako plazetarako) eskatzen den hizkuntza-eskakizuna duela egiaztatzea, edo hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen-probak gainditzea. Eskakizun hori betetzeko data dagokion hautaketa-prozesuko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeako proba egiten den eguna izango da.

k) Herri Administrazioen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea. Hargatik eragotzi gabe kargu publikoa edo jarduera pribatu bateraezina betetzen dutenek aipatutako lege-arauetan aipatzen den aukera-eskubidez baliatzea.

l) Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik tasa ordaindu izana, parte hartzen duen dagokion lan-prozesuari, eskalari edo kategoriari dagokiona; eta zenbatekoa oinarri espezifikokoan zehaztuta egongo da.

m) Deialdia egin duen Udalean ez izatea karrerako funtzionarioak edo eskala, azpieskala edo kategoria bereko lan-kontratuko langile finkorik.

n) Oinarri espezifikokoan eskatzen den beste edozein betekizun.

Hautaketa-prozesu honetako hautagaiek berriaz onartu beharko dute beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta adierazitako helbururako erabiltzea.

2.1 – Baldintzak betetzeko datak.

Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretan eta espezifikokoan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik, 8.1 oinarrian aurreikusitako salbuespenak izan ezik, eta horiek betetzen jarraitu beharko dute karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzen diren egunean edo plantillako lan-kontratuko langile finko gisa kontratatzen diren egunean.

2.2 – Baldintzak egiaztatzeako denbora eta modua.

Baldintzak egiaztatzeko denbora eta modua 8. oinarrian daude ezarrita.

3- Ezgaitasuna duten pertsonen sarbidea.

Ez da egokitzen.

4- Hautatzeko baldintza orokorrak.

Lanpostuak betetzeko baldintzak ezarrita dituzten lanpostuei lotutako plazak ezin izango dituzte, inola ere, baldintzak betetzea egiaztatu ez dutenek bete. Baldintza horiek deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoean zehaztuko dira.

Deialdi bakoitzean, deialdiko plazei lotutako lanpostuei esleitutako baldintza espezifikoak zerrendatuko dira.

Lanpostu jakin batzuek espezialitate jakin bat eskuratzeko betekizuna badute, deialdien oinarri espezifikoek zehaztuko dute egiaztatzeko modua.

5.- Lanpostuak esleitzeko baldintza orokorrak.

Epaimahaiak ezin izango du proposatu jende gehiago sartzea, karrerako funtzionario edo lan-kontraturako langile finko gisa deitutako plazetatik gora, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

-Izendatu edo karguaz jabetu aurretik hautatutako pertsona batzuek uko egiten badute, edo

-Hautagaiek 15. oinarrian xedatutakoaren arabera eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badute. Edo hautagaiek aurkeztutako agirietatik 2. oinarrian eskatutako baldintzaren bat ez dutela betetzen ondorioztatzen bada. Edo dagozkion zereginak betetzeko eska badute.

Kasu horietan, epaimahaiak hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda erabiliko du eta behar diren hautagaien aldeko izendapen osagarriaren proposamena egingo du. Hori guztia hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendaren puntuazio-ordenaren arabera. Horrela, hautatutzat joko dira aipatutako inguruabarren ondorioz hutsik geratu diren plazen kopuru bera duten hautagaiak.

b) Lanpostuaz jabetzeko unean lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-eskaerak egiten direnean, eta egonkortze-deialdietan plaza lortzeagatik lanpostua erreserbatu gabeko eszedentzia-eskaerak egiten direnean, hutsik geratzen diren plazak esleituko dira. Horretarako, aurreko kasuan bezala, epaimahaiak egindako hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen zerrenda erabiliko du.

Lanpostuaz jabetzeko unean eszedentzia-egoerara igarotzeko inguruabarrak baliozkoak izateko, izendapen-proposamena jakinarazi eta gehienez ere 15 eguneko epean egin beharko da eskaera.

6- Argitalpenak eta iragarki-taula.

Hautaketa-prozesuen deialdiak dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratuko dira, eta, gainera, Arraia-Maeztuko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean ere bai.

Hautaketa-prozesuan zehar, bere garapenari buruzko informazio guztia Arraia-Maeztuko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da, jakinarazpen ondoretarako.

7- Eskabideak aurkeztea

7.1- Prozesuan onartzea.

Parte hartu nahi dutenek eskabide-ereduan adierazi beharko dute zein hautaketa-prozesutan parte hartu nahi duten eta zein plaza lortu nahi dituzten, nahiz eta laneko eskala/azpieskala/klase edo kategoria berekoak izan.

Hautaketa-prozesuetan onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira: 1) eskabidea atal guztietan betetzea, 2) epearen barruan aurkeztea eta 3) langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik ordaindu beharreko tasak ordaintzea.

Era berean, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira eskatutako baldintza guztiak, 8.1 oinarrian elkargoko kide egiteari, espezialitateari eta euskararen ezagutzari buruz aurreikusitakoa izan ezik; azken kasu horretan, 8.10 oinarrian aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko da.

7.2. – Eskabideak aurkezteko era.

Eskabideak egoitza elektronikoan deialdiaren fitxan argitaratutako inprimakiaren arabera egingo dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta tasa ordainduz formalizatu beharko dira.

Aurrekoaz gain, eredu ofizial eta normalizatu bat ere egongo da, Udalaren webgunean eskuragarri egongo dena (enplegu publikoko eskaintza), eskabideak aurkezteko epea irekitzen den unean.

Paperezko inprimakia inprimaki elektronikoaren berdina izango da, eta edukiak eskatzen duen zehaztasunarekin bete beharko da. Nolanahi ere, hautagaiak puntuazioa kalkulatu beharko du, plazari dagozkion oinarri espezifikoetan ezarritako merezimenduen baremoa aplikatuta, autobaloraziorako laguntza-aplikazio baten bidez. Aplikazio hori toki-erakundearen webgunean eta haren egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri.

Onartuak izateko eta dagozkien hautaprobetan parte hartzeko, nahikoa izango da eskabide-orrian bere erantzukizunpean adieraztea eskatutako baldintza guztiak betetzen direla, betiere aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez.

Hautaketa-prozesuan onartua izateko, nahitaezkoa izango da azterketa-eskubideen edo beste hautaketa-proba batzuen tasa ordainduta izatea. Tasa hori oinari orokor honen lehenengo paragrafoan xedatutakoaren arabera ezartzen da azterketa-eskubideen edo beste hautaketa-proba batzuen tasa arautzen duen Ordenantza-Fiskalean.

Parte hartzeko eskabidearekin batera, ez da aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak betetzen direla egiaztatzen duen agiririk. Nahikoa izango da hautagaiek, beren erantzukizunpean, adieraztea parte hartzeko eskabidea

aurkezteko epea amaitzen den egunean prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, hizkuntza-eskakizuna izan ezik, eta deialdia argitaratzen den egunean alegatu eta autobaloratzen diren merezimenduak egiazkoak eta zehatzak direla. Nolanahi ere, bi kasuetan, alkatetzak edo dagokion epaimahai kalifikatzaileak egiaztatu ahal izango ditu gero, edo, hala badagokio, hautagaiak alegatutako merezimenduak egiaztatu eta epaimahai kalifikatzaileak egiaztatu ahal izango ditu, 8. eta 14. oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Parte hartzeko baldintzak eta eskabidean alegatutako merezimenduak agiri bidez egiaztatu beharko dituzte, dagokion unean, alkatetzak edo dagokion epaimahai kalifikatzaileak horretarako berariaz eskatutako pertsonak soilik, 8. eta 14. oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Oinarri hauen eta egonkortzeko hautaketa-prozesuen ondorioetarako, parte hartzeko eskabidean hautagaiak parte hartzeko baldintzak betetzen dituela eta bertan alegatutako merezimenduak dituela adieraztea erantzukizunpeko adierazpenzat hartuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 64. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eskabidearekin batera, langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasa ordaindu izanaren ziurtagiria bakarrik aurkeztu beharko da, hala badagokio.

Eskabidearen laukian adierazi beharko da zein txandatan parte hartu nahi den: a) Librea.

Euskararen informazioari buruzko eskabidearen epigrafean, hala badagokio, eskatutako hizkuntza-eskakizuna duten adieraziko da nahitaez. Horrez gain, euskara-azterketa egin nahi duenak, zein maila egiaztatzeko azterketa egin nahi duen berariaz zehaztu beharko du.

7.3.- Eskabideak aurkezteko modua.

7.3.1 Eskabideak eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko tokiak:

a) Eskaera elektronikoa egoitza elektronikoan:

<https://epeope2023.araba.eus/eu/izapidetu/aytoarraiamaeztu>

Aurkezpen elektronikoa aukeratuz gero, programak onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitarteko bat eduki beharko duzu.

b) Aurrez aurreko eskaera:

Udaleko erregistro eta herritarren arretarako bulegoan, Maeztuko Geltoki kalea-an 13.zenbakian kokatuta.

Eskabidea Herritarren Erregistro eta Arreta Bulegoetako batean aurkeztea, hitzordua eskatu behar da 945 41 00 33 telefonoan.

7.3.2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira.

Administrazioarekin elektronikoki harremanetan jartzera behartuta dauden legezko langileen kasuan, aurkezpena egoitza elektronikoan egingo da.

Udaleko Alkatzetza joko dute. Antzeman daitezkeen egitatezko akatsak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edota interesdunak eskatuta.

Hautagaien eskabidean emandako informazio guztia tratamendu-jarduera batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeko baino ez da erabiliko. Tratamendu-jarduera horren erabilera eta funtzionamendua Datu Pertsonalak Babestari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean aurreikusitakora egokituko dira. Ofizioz egiaztatu edota espedientearen sartuko dira, interesdunak berariaz kontrakoa adierazi ezean, honako baldintza/informazio hauek:

- Nortasun-datuak egiaztatzea
- Titulazio akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak)
- Hizkuntza-eskakizun altuena (Euskara)
- Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen bidez (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) egindako eta gainditutako ikastaroen zerrenda.
- Gidabaimenak (DGT) edo IT Txartelak (erakunde ziurtatzailea)

Aurkeztu beharreko agiriak deialdia egin duen Udalaren esku daudenean, ez da beharrezkoa izango berriro aurkeztea, betiere agiriak zein egunetan eta zein bulegotan entregatu diren adierazten bada, eta prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

7.3.3.- Langileak hautatzeko deialdietan izena emateagatik tasak ordaintzeko modua.

7.3.3.1. Tasa nominalki eta banan-banan ordainduko da hautaketa-prozesu bakoitzerako, eta hautaketa-prozesu bakoitzerako, eta kuota xxx eurokoa izango da.

7.3.3.2. Tasa ordainduko da Kutxabank entitateko ES81 2095 3222 34 1095225750 kontu korrante zenbakian dirua sartuz ordainduko da. Eskaerarekin batera ordainagiria aurkeztu beharko da.

7.3.3.3. Eskabideak aurkezteko epean tasa ordaintzen ez bada edo osorik ordaintzen ez bada, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

7.4.- Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hogeitun (20) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira.

7.5.- Eskabideen akatsak.

Eskabidea garaiz eta behar bezala aurkezten ez bada, hautagaia kanpoan geratuko da.

Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikularekin bat etorritik, eskabideetan akatsen bat egonez gero, interesdunari eskatuko zaio, udaletxeko iragarki-taulan eta iragarkia jarritik <https://arraia-maeztu.eus> webgunean (enplegu publikoaren eskaintza), hamar egun balioduneko epean dokumentazio falta zuzen dezan, hautagaiak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenaren arabera. Era berean, jakinarazi egingo zaio, hala egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, horretarako ebazpena eman ondoren.

Hautaketa-prozesuak eskatzen duen dokumentazio hori eta gainerako dokumentazioa zazpigarren eta hamalagarren oinarrietan adierazten den moduan bakarrik aurkeztuko dira.

Osorik edo zati bat ordaindu ez bada zuzendu ahal izango da soilik Eskatzaileak alegatutako salbuespenaren onuradun izateko baldintzak betetzeari buruz egindako akatsaren ondorio denean. Horretarako, hamar eguneko epea emango zaio pertsonari akatsa zuzentzeko.

8. – Betekizunak eta merezimenduak. Erreferentzia-datak, deskribapena, alegazioa eta egiaztapena.

8.1. – Merezimenduak betetzeko erreferentzia-datak eta parte hartzeko baldintzak.

Alegatzen diren merezimenduak eta betekizunak edukitzeko erreferentzia-data eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna izango da, honako kasu hauetan izan ezik:

– Euskararen ezagutza, 8.10 oinarrian ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dena.

– Dagozkion elkargo profesionalean elkargokide izatea, lanbide arautu bati dagozkion eginkizunak betetzen dituzten eskalak edo lanpostu zehatzak direnean. Lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da hori.

Eskabidea aurkeztean eta merezimenduen alegazioa eta auto-balorazioa egitean, hautagaiak ez du aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituen dokumenturik, 7.2 oinarrian jasotakoaren arabera.

8.2. – Eskakizunak eta merezimenduak alegatzea.

Parte hartzeko baldintza orokorrak, deitutako plazei lotutako lanpostuen betekizun espezifikoak eta merezimenduak ere, eskabideak aurkezteko epean alegatu beharko dira.

8.3. – Eskakizunak eta merezimenduak egiaztatzea.

8.3.1. – Onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda onartzen duen Alkatetzaren ebazpenean, 10.1 oinarrian ezarritakoaren arabera auto-balorazio handiena duten hautagaiei eskatuko die 10 egun balioduneko epean, errekerimendua argitaratzen denetik zenbatzen hasita, eskabidean alegatutako merezimenduak eta, hala badagokio, parte hartzeko egokitzen jotzen dituzten baldintzak agiri bidez egiaztatu dituzten.

Izapide honetan ezin izango da merezimendu berririk alegatu, ezta parte hartzeko eskabidean alegatutakoak aldatu ere. Aipatutako errekerimendua eskabidean alegatutako merezimendu guztiei buruzkoa izango da.

Alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuan kasu, dagozkion erregistroei, administrazio publikoetako datuak kontsultatzeko plataformari edo ziurtagiria ematen duen erakundeari kontsulta eginez.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzailearen aurkakotasun arrazoitua agertzen bada eta tratamendu-jarduketaren ardura duen organoak ikusten badu.

Aurkakotasun arrazoitua agertuz gero, aurkakotutako dokumentuak aurkeztu beharko dira aurkakotasunarekin batera.

8.3.2. – 14. oinarrian xedatzen den bezala, hautatutako pertsonen, karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izendatu aurretik, honako merezimendu eta baldintza hauek betetzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- epaimahai kalifikatzaileak ezin izan du egiaztapenik egin, edo
- hautagaiak egiaztapen horren aurka jo du eta organo eskudun jakitun da.
- Hala ere, epaimahai kalifikatzaileak prozeduraren aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du dokumentazio hori aldeztu aurretik aurkeztea. Kasu horretan, dokumentazioak oinarri orokor hauen 14. oinarrian ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

8.4. – Ezgaitasuna duten pertsonen sartzeko txandan parte hartzeko baldintza.

Ez da aplikatzen.

8.5. – Esperientzia eta antzinasuna.

Administrazio publikoetan emandako zerbitzuen esperientzia funtzionalki antzekoak diren plazaiei lotutako lanpostuak lortzeko baloratuko da.

- Deialdia egin duen Udalean egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, eta ofizioz zenbatuko dira.
- Gainerako herri-administrazioetan egindako zerbitzuak egiaztatzeko agiriaren kopia sinple batekin alegatu beharko dira.

Dokumentu horrek, administrazio bakoitzak erabakitzen duen ereduaren, lan egindako aldiak banakatu beharko ditu, eta plazari lotutako lanpostuaren taldea, kidegoa, aukera, eskala, azpieskala, mota edo kategoria eta izena zehaztu beharko ditu.

Ondorio horietarako, honako hauek baloratuko dira: hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran egon diren denbora; lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora, amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa modu erantzukidean uztartzea helburu duena, bai eta enplegatu publikoek genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikulua araberako (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatu zuen lege hori).

8.6. – Titulazioak.

Titulazioen alegazioa, bai betekizun gisa, bai merezimendu gisa, dagokion izapidean deklaratu egingo da, 8.2. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

Atzerriko tituluen kasuan, tituluaren kopia soila ere aurkeztu beharko da, bai eta homologazioa egiaztatzen duen egiaztagirarena ere, kalifikazio-epaimahaiak hala eskatzen duenean.

8.7. – Hizkuntzak.

Abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotzen diren tituluak eta ziurtagiriak baino ez dira baloratuko. Errege-dekretu horrek, oinarritzko izaerarekin, hainbat ikasketa-planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen eta errege-dekretukoen arteko baliokidetasunak ezartzen ditu, betiere horiek lotura badute deitutako plazei lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin.

- Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako tituluak eta ziurtagiriak merezimenduak alegatzeko epean aurkeztu beharko dira.
- Beste erakunde batzuek emandako tituluak eta ziurtagiriak. Aitorpenaz gain, egiaztagiriaren kopia soila ere aurkeztu beharko da.

8.8. – Informatikako ezagutzak.

Informatikako ezagutzak IT Txartela ziurtagiriaren sistemaren bidez egiaztatuko dira, eta merezimenduak alegatzeko epean alegatu beharko dira.

8.9. – Karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko prozeduretan probak gainditzea.

Merezimenduak alegatzeko izapidean egindako deklarazioaren bidez alegatuko dira, data zehatzak eta erreferentziako EPE adieraziz, eta ofizioz baloratuko dira, oinarri espezifikoetan ezartzen diren baldintzetan, honako merezimendu hauek:

– Deialdia egin duen Administrazioan karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko prozeduran oposizio-fasea gainditzea, plazarik lortu gabe, baldin eta Enplegu Eskaintza Publikoaren bidez egin bada eta horren deialdia BOEn argitaratu bada.

8.10. – Euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.

Euskara-azterketa nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko eta borondatezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan, eta ez baztertzaila gainerako lanpostuetan. Euskararen derrigorrezko azterketa eta azterketa baztertzaila gainditzen edo egiten ez duten hautagaiek hautaketa-prozedurarekin jarraituko dute derrigortasun hori duten lanposturik ez duten lanpostuetan, eta, hala badagokio, ariketa honetan lortutako kalifikazioa zenbatuko da.

Arraia-Maeztuko Udalean hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu beharko parte hartzen duten hautaketa-prozesuan, ezta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta daudenean ere. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea. Dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskara-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoa da eta salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan dagoeneko agertzen denean aplikatzen da.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen ez badira salbuespen horretatik kanpo daude eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da, 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuei dagokienez.

Nolanahi ere, edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri egiaztatzeke gehienezko epea euskara-ariketa egiten den eguna izango da.

Dagozkion egiaztapenak egiteko, interesdunak berariaz emango dio baimena Arraia-Maeztuko Udalari egiaztapena egiaztatzeko edo aipatutako erregistroan salbuesteko.

Edonola ere, interesdunak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsulta ditzake bere datuak, honako esteka honen bidez: <https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>

Hizkuntza-eskakizunen ziurtagiri eta titulu baliokideak honako hauetan zehazten dira: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena. Eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartu eta euskarazko tituluekin eta ziurtagiriekin egiaztatzen salbuesteko dena.

8.11. – Lanpostuen betekizun espezifikoak.

Lanpostuen zerrendan betekizun espezifikoak esleituta dituen plaza bati lotutako lanpostu bat esleitu ahal izateko, hautagaiak alegazioa egin beharko dute 8.2 oinarrian ezarritako epean, oinarri espezifikoetan horietako bakoitzerako zehazten den moduan.

9- Hautagai-zerrendak onartzea

9.1.- Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta eskabideetako akatsak zuzentzeko izapidea amaitu ondoren, Alkatetzak ebazpena emango du behin betiko onarpen, bazterte eta atzera egiteen zerrendak onartzeko, hautagaiak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenarekin bat etorriz. Adierazpen hori Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, Udaleko iragarki-taulan eta <https://arraia-maeztu.eus> webgunean argitaratuko da.

Zerrenda hori eskatzaile bakoitzak eskabidean betetako erantzukizunpeko adierazpeneko datuen arabera egingo da.

Zerrendetan honako hauek jasoko dira: hautagaien izena eta bi abizenak, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, baita prozesutik kanpo geratzen diren pertsonak ez onartzeko arrazoia ere.

Gainera, zerrenda horietan argitaratuko da, behin-behinean, Autobalorazio Formularioan lortutako puntuazio osoa, hautagai bakoitzak behar bezala sinatutako erantzukizunpeko adierazpenean adierazitakoaren arabera, Epaimahai Kalifikatzaileak baloratuko dituen eskabide-kopurua (eta horiekin berdinduta daudenak) zehazteko.

9.2.- Onarpenen, bazterketen eta atzera egiteen zerrendak onartzen dituen Alkatetzaren ebazpenaren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Alkatetza-Lehendakariari, hilabeteko (1) epean, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Baztertutako pertsonak merezimenduaren balorazioa aurkeztu ahal izango dira, baita euskara-proba egitera ere, kautelaz, baldin eta kanporatzearen aurkako errekurtsioa

aurkeztu dutela egiaztatzen badute eta baldin eta egun horretarako errekurtsua ebatzi ez bada.

Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean jarritako errekurtsua ebatzi ez bada, interesdunek kautelaz egin ahal izango dute euskara-proba. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsua ezesten bada.

9.3.- Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei aitortzen zaienik hautaketa-prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Azkenean pertsona hautatua izango balitz, izendapenaren aurretik aurkeztu behar den dokumentaziotik baldintzaren bat ez dutela ondorioztatzen bada, prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte.

Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakiten badu deialdian parte hartzeko baldintzaren bat betetzen ez duten hautagaiak daudela, interesdunari entzun ondoren, baztertzeko proposamena egin beharko dio organo eskudunari, eta parte hartzeko eskabidean pertsona horrek egindako zehaztasun ezak edo faltasutasunak jakinarazi beharko dizkio.

10. – Hautaketa-prozedura

10.1.- Hautaketa-prozedura lehiaketa izango da, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdi honetan. txanda bakarra egongo da, librea, deialdiaren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

Lehiaketa honetan, Epaimahai Kalifikatzaileak aztertu eta baloratuko ditu Auto Balorazioko Formularioan alegatutako eta eskabide-kopuruaren arabera kreditatutako merezimenduak, hamargarren oinarri honetan eta deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan ezarritakoaren ildotik.

Alkatetzaren onarpenen, bazterketen eta atzera egiteen ebazpenetik eratorritako zerrenda Auto Balorazioaren Formularioan lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuko da, Epaimahai Kalifikatzaileak baloratuko dituen eskabide-kopurua (eta horiekin berdinduta dauden guztiak) zehazteko, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera eta kategoria bakoitzerako deitutako plazen arabera, honako eskala honen arabera:

- Deitutako 5 plaza edo gutxiago: deitutako plazak bider 5
- Deitutako 5 plaza baino gehiago eta gehienez 10: deitutako plazak bider 4
- Deitutako 10 plaza baino gehiago: deitutako plazak bider 3

Aurrekoari kalte egin gabe, hautagai-zerrenda bideragarririk ez badago, Alkatetzaren onarpen, bazterketa eta atzera egiteen ebazpenetik eratorritako zerrenda erabiltzea erabakitzen bada, jarduketa hori bertan agertzen den puntuazio-ordena zorrotza errespetatuz egingo da.

Eskaera-orrietan jasotako merezimenduak neurtzeko eskalak barnean hartuko ditu hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten pertsonak, hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa den lanpostuetan. Baina kasuan kasuko euskara-azterketa egiteko izena

eman badute eta azterketa gaindituz egokituko litzaiekeen puntuazioa adierazita. Derrigortasunik gabeko plazen kasuan ere egokituko litzaiekeen puntuazioa emango zaio.

10.2.- Euskara-azterketa nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duen lanposturen bat duten lanpostuen kasuan, salbu eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta badute, eta borondatezkoa eta ez baztertzaila gainerako lanpostuetan. Euskararen derrigorrezko azterketa eta azterketa baztertzaila gainditzen edo egiten ez duten hautagaiak hautaketa-prozedurarekin jarraituko dute derrigortasun hori duten lanposturik ez duten plazetan, eta, hala badagokio, ariketa honetan lortutako kalifikazioa zenbatuko da.

Euskara-azterketa egin ahal izango dute prozesuan parte hartzen duten pertsonak, baldin eta lehiaketa-fasean oinarri espezifikoean adierazitako gutxieneko puntuazioa lortu badute.

Arraia-Maetzuko Udalean hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriro egiaztatu beharko parte hartzen duten hautaketa-prozesuan, ezta Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta daudenean ere. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan, ez da beharrezkoa izango dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztea (47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskara-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzkoa), salbuespen hori Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan dagoeneko agertzen denean.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan agertzen ez badira, ezingo dira aukera horretaz baliatu eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute, 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztapen-salbuespenen kasuan.

Dagozkion egiaztapenak egiteko, interesdunak berariaz baimena emango dio Arraia-Maetzuko Udalarri egiaztapena egiaztatzeko edo aipatutako erregistroan salbuesteko.

Edonola ere, interesdunak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsulta ditzake bere datuak, esteka honen bidez: <https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>

Deialdiko euskara-azterketa egin arte egiaztatu ahal izango da lortutako hizkuntza-eskakizuna. Eta eskabidean hala eskatu dutenek bakarrik aurkeztu ahal izango dute.

10.3. – Lehiaketa-fasearen kalifikazioa

Deialdiko merezimenduen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du lehiaketa-fasearen balorazioa.

10.4. – Lehentasun-klausula.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, (martxoaren 3ko 1/2022 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldatu duena), trebakuntza-berdintasuna badago, emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeen ordezkari % 40tik

beherakoa den eskaletan, salbu eta beste hautagaiak sexuaren ziozko diskriminaziorik ez dakarten arrazoiak dituenean, neurri hori ez aplikatzea justifikatzen badute, hala nola enplegua lortzeko eta sustatzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Horretarako, hautagaien artean gaitasun bera dagoela ulertuko da hautaketa-prozesuaren azken puntuazioan berdinketa gertatzen denean, hau da, dagozkion merezimenduak batu ondoren.

Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikotetan, deialdia egin duen udalak zehaztuko du artikuluko horretan xedatutakoa aplikatuko den ala ez, dagokion eskala/azpieskala/klasean edo kategorian emakumeek duten ordezkartzan oinarrituta.

10.5. – Berdinketa hausteko irizpideak.

Aurreko 10.4 atalean xedatutakoari kalterik egin gabe, gainera, berdinketak gertatzen badira, ordena ezartzeko kontuan hartuko da, lehenik eta behin, deialdia egin duen Udalean zerbitzu-denbora gehien eman duen hautagaiaren alde, deitzen den eskala, azpieskala edota kategoria berdinetan; bigarrenik, deialdia egin duen Udalean zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde; hirugarrenik, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzu-denbora gehien eman duenaren alde, eta, azkenik, berdinketak jarraitzen badu, zozketaren sistemara joko da.

10.6. – Prozedura eta erreklamazioak.

Merezimenduak baloratu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak behin-behineko kalifikazioak argitaratzeko aginduko du, deitutako lanpostuen hizkuntza-eskakizuna kontuan hartuta.

Argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute, 6. oinarrian adierazitako lekuetan, egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, eta aurkeztutakoak ebatzita, epaimahai kalifikatzaileak argitaratzeko agindua emango du, eta alkatetzara bidaliko ditu gainditutakoen azken kalifikazioak eta eskainitako lanpostuak.

Deitutako eskala edo kategoria bakoitzeko gaindituen behin betiko zerrendak argitaratuko dira, deitutako lanpostuen hizkuntza-eskakizuna kontuan hartuta. Zerrenda horietan hautagai bakoitzaren lehentasun-ordena adieraziko da, lortutako puntuazioaren arabera eta, hala badagokio, lehentasun-klausula eta berdinketa hausteko irizpideak aplikatuta.

11. – Destinoa aukeratzea

Deialdi bakoitzerako hautagaien behin betiko kalifikazioa egin eta argitaratu ondoren, hamar egun balioduneko epea ezarriko da destinoa aukeratzeko.

11.1. – Parte-hartzaileak.

Lanpostuak aukeratzeko prozesu honetan parte hartuko duten pertsonak izango dira deialdi, txanda eta hizkuntza-eskakizun bakoitzeko epaimahaiak zehazten duen lehentasun-hurrenkera bera edo txikiagoa dutenak. Kopuru horrek ziurtatu beharko du hautatutako plaza guztien esleipena.

Prozesu honetan parte hartuko duten pertsonen zerrenda nominalak behin betiko kalifikazioei buruzko epaimahai kalifikatzailearen ebazpenean sartuko dira, eta 6. oinarrian adierazitako lekuetan argitaratuko dira.

Hautaketa-prozesuan parte hartzearen ondoriozko eskubideak galduko dituzte destinoa oinarri hautetan aurreikusitakoaren arabera garaiz eta moduan aukeratzen ez dutenek.

11.2. – Eskaintako plazen zerrenda

Eskala/azpieskala/kategoria bakoitzerako eskaintako plazen zerrendan honako hau adieraziko da: lotutako lanpostuaren izena, esleitutako destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data eta berariazko betekizunak.

11.3. – Destinoak aukeratzeko eskaerak.

Lanpostuak elektronikoki aukeratzeko, sede elektronikoko inprimakia bete beharko da.

Era berean, izapide hori bete ahal izango da 7.3 oinarrian adierazitako Udalaren bulegoetara joanda, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bulegotan aurkeztuta.

11.4. – Aukeratutako lanpostuen antolamen-dua.

20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuan destinoa aukeratzeko prozeduran parte hartzera deitutako pertsonak lanpostu-zerrenda bakarra egingo dute, eta, bertan, beren lehentasunen arabera, eskaintako plazei lotutako lanpostuak ordenatuko dituzte, hizkuntza-eskakizunaren eta, hala badagokio, lanpostuei esleitutako baldintza espezifikoaren arabera.

12. – Destinoak esleitzea.

Zerrenda bat egingo da deialdi bakoitzeko, eta, horren barruan, hizkuntza-eskakizun bakoitzeko eskaintako lanpostu bakoitzeko, prozesuan lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuta, handienetik txikienera. Zerrenda horren ordena erabakigarria izango da destinoak esleitzeko.

13. – Hautatutako pertsonen zerrenda.

Destinoak aukeratzeko epea amaitutakoan, hautatutako pertsonen eta esleitu beharreko plazen behin-behineko zerrenda egingo da, eskatutako baldintzak, hautagai bakoitzaren puntuazio-ordena eta adierazitako lehentasunak kontuan hartuta. Zerrenda hori Alkatetzaren/Lehendakaritzaren ebazpen bidez argitaratuko da, 6. oinarrian adierazitako lekuetan, eta 10 egun balioduneko epea ezarriko da erreklamazioetarako eta hautagaiek eskatutako lanpostuen baldintza bereziak zuzentzeko.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, ebazpena Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta bertan adieraziko da hautatutako pertsonen eta esleipenaren xede diren lanpostuen behin betiko zerrendak 6. oinarrian adierazitako lekuetan egongo direla ikusgai.

14- Dokumentuak aurkeztea.

Proposatutako hautagaiak deialdiko Oinarrietan eskatzen diren hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzen egiaztagiria aurkeztu beharko ditu Udaleko Erregistroan, 20 egun balioduneko epean, gainditutako en zerranda argitaratzen denetik zenbatzen hasita:

1. Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta diziplina-espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik kendu ez dutela dioen adierazpena.
2. Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun-arrazoiren batean sartuta ez egotearen adierazpena.
3. Korporazioak zehazten dituen zerbitzu medikoek emandako ziurtagiri medikoa, oinarri hauen arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena. Ezgaitasuna duten hautagaiek organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, izaera hori eta lanpostuaren berezko eginkizunak betetzeko gaitasuna egiaztatzen dituen.
4. Eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean titulua edo hori lortzeko moduan dagoela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia konpultsatua eta deialdiaren oinarrietan eskatzen diren gainerako betekizun espezifikoak egiaztatzea.

Adierazitako agiriak aurkeztea ezinezkoa bada, deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ahal izango du hautagaiak, zuzenbidean onargarria den edozein frogabide erabiliz. Funtzionario publiko edo lan-kontratuko langile denak ez ditu agiri bidez justifikatu beharko aurreko izendapena lortzeko egiaztatutako baldintzak eta betekizunak. Ministerio, administrazio autonomiko, toki-korporazio edo menpeko erakunde publikoaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, bere izaera eta bere zerbitzu-orrian jasotako inguruabar guztiak egiaztatuz. Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako hautagaiak ez badu bere dokumentazioa aurkezten edo eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, ezin izango da izendatu, eta bere jarduketa guztiak balio gabetuta geratuko dira, eskabidean faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe, eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatuko du.

15. Kontratazioa edo izendapena, lanpostua atxikitzea eta lanpostuaz jabetzea.

15.1. Epaimahaiak egindako proposamena eta hautagaiak aurkeztutako dokumentazioa ikusita, oinarri hauek xedatzen dutenarekin bat badatoz, Alkatetzak arrazoituta ebaztuko du hautaketa-prozesua, gainditu duten hautagaiak kontratatuz edo izendatuz, dagokionaren arabera. Izenpetuko den lan-kontratuak probaldia izango du. Funtzionarioentzat gordetako plazen kasuan egingo den izendapena praktiketako funtzionario gisa egingo da, praktikaldi bat duela, 16. oinarrian ezarritakoaren arabera.

15.2. Izendapen- edo kontratazio-ebazpenak lanposturako atxikipena ere jasoko du, eta behin-behineko izaera izango du, harik eta probaldia edo praktikaldia aurreikusten den arte, 16. oinarrian ezarritakoaren arabera.

15.3 Funtzionario izendatutako hautagaiek hilabeteko epea izango dute, izendapena lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, legez

ezarritako zina edo promesa egiteko eta korporazioko idazkariaren aurrean karguaz jabetzeko. Zina egin edo hitza ez emateak edo karguaz jabetzeak, ezinbesteko kasuetan izan ezik, eskubide guztiak galtzea ekarriko du.

16. Probaldia edo praktikaldia.

16.1. Praktikaldi bat ezarriko da funtzionarioen plazetarako, eta probaldia lan-kontratuko langileen plazetarako kasu zehatz bakoitzean. Kasu horretan, eta aldi horrek irauten duen bitartean, kontratatutako pertsonak edo praktiketako funtzionario izendatutakoak normaltasunez beteko ditu bere zereginak, eta ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du, indarrean dauden negoziazio kolektiboko tresnetan ezarritako aurreikuspenen arabera. Probaldia edo praktikaldia egoitza korporatibo berean egingo da, pertsona baten tutoretzapean (edo batzorde ebaluatzaile baten tutoretzapean). Pertsona horrek karrerako funtzionario edo lan-kontratuko langile finkoa izan beharko du, Alkatetzak izendatua.

16.2. Probaldiaren edo praktikaldiaren iraupena jarraian adierazitakoa izango da, dagokion taldean eta azpitaldean edo eskalan eta azpieskalan sartzeko eskatzen den titulaziorako parekatutako lanbide-talde edo -kategoriaren arabera:

a) A eta B taldeak: 6 hilabete

b) C taldea: 3 hilabete

c) Lanbide-taldeak: 3 hilabete

16.3 Aldi horretan, tutore izendatutako pertsonak (edo ebaluazio-batzordeak) ahaleginak egin beharko ditu hautagaiak prestakuntza praktikoa eskura dezan eta arian-arian dagozkion funtzioak bere gain har ditzan.

16.4. Aldi hori amaitutakoan, tutore izendatutako pertsonak (edo ebaluazio-batzordeak) txostena egingo du, eta bertan berriaz adierazi beharko du hautagaiak probaldia edo praktikaldia gainditu duten. Gainditzen dutenak karrerako funtzionario izendatuko dira edo lan-kontratu finkoa formalizatuko dute. Bestela, ez-gaitzat joko dira Lehendakartzaren ebazpen arrazoituaren bidez, eta alde aurretik entzunaldia emango zaie, tutorearen (edo ebaluazio-batzordearen) txostena ikusita. Ondorioz, karrerako funtzionario izendatzeko eta lan-kontratuko langile finko gisa kontratatzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

16.5. Karrerako funtzionarioaren izendapena lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta legez ezarritako beste edozein aldizkaritan argitaratuko da.

17. – Epaimahaia.

17.1. – Osaera.

Epaimahaia honako hauek osatuko dute: lehendakari batek, hirutik gorako batzarkide-kopuru bakoitiak, Idazkariak eta horien ordezkoeak.

Epaimahaiaren osaera orekatua izan behar da trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen artean. Horrela ez osatzekotan behar bezala justifikatu beharko da. Ordezkaritza orekatutzat joko da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza duenean, Euskal Funtzio

Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan xedatutakoaren arabera (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak aldatua).

Epaimahaiak, egoki baderitzo, espezialisten aholkularitza izan dezake. Pertsona horiek, epaimahaiarekin lankidetzan, beren espezialitate teknikoei buruzko aholkularitza besterik ez dute emango.

Egokitzat jotzen den kasuetan, eta deitutako plazei lotutako lanpostuen berezitasun espezifikoak egiaztatzeko, hautagaiak alegatutako merezimenduei dagokienez, epaimahaiak Arraia-Maeztuko Udaleko teknikarien laguntza eduki ahal izango du, behar dituen gai teknikoetarako.

Epaimahaietako kidea norbere izenean izango da eta ezin izango da izan inoren ordezkari edo inoren kontura.

17.2. – Izendapena.

Alkatetzak/Lehendakaritzak izendatuko ditu epaimahaikideak. Izendapenak 6. oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko dira, onartutakoan eta baztertutakoan behin betiko zerrendarekin batera.

17.3. – Abstentzioa eta errefusatzea.

Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, alkatetzari/lehendakaritzari jakinarazita, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeretan, edo deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaprotetan parte hartzeko hautagaiak prestatzeko lanak egin badituzte.

Era berean, aurreko kausetako bat gertatzen denean, interesdunek edozein unetan errefusatu ahal izango dituzte epaimahaiko kideak, aipatutako lege-testuaren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

17.4. – Jarduteko arauak.

Auzitegiak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura zehaztutako arauetara egokituko du bere jarduna. Nolanahi ere, idazkariak deialdia egin ondoren, lehendakariak hala aginduta, prozesuak hasi baino lehen bilduko da, eta, eratzeko, beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria, edo, hala badagokio, horien ordezkariak, eta kideen erdiak, gutxienez, bertaratzea.

Epaimahaia osatzen dutenek hitza eta botoa izango dituzte, idazkari denak izan ezik, hitza izango baitu, baina botorik ez.

Epaimahaiaren erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira. Berdinketak lehendakariaren kalitatezko botoaren bidez ebaziko dira.

Kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat badago, lehendakariaren eta haren ordezkariaren lekua antzintasun eta adin handieneko batzordekideak hartuko du, hurrenkera honetan:

Idazkariaren eta haren ordezkoren ordezkapena, baldin eta kargua hutsik badago, bertaratu ez bada, gaixorik badago edo eragiten dien legezko beste arrazoiren bat badago, epaimahaiak gehiengoz aukeratutako kideak beteko du.

17.5. – Ahalmenak.

Epaimahaiak autonomia funtzional osoz jardungo du, eta prozeduraren gardentasunaz eta objektibotasunaz, proben edukiaz eta konfidentziasunaz eta deialdiaren oinarriak zorrotz betetzeaz arduratuko da.

Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, oinarri hauek eta oinarri espezifikoak aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebartziko ditu, eta deialdia behar bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, horietan aurreikusi gabeko kasuei dagokienez hartu beharreko irizpideak ezarriz.

17.6. – Egoitza.

Epaimahaiari erreklamazioak elektronikoki egingo zaizkio, sede elektronikoko inprimakia beteta.

Era berean, deialdia egin duen udalaren bulegoetara joan ahal izango dira (7. oinarrian adierazitakoak), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bulegotan aurkeztu ahal izango dira.

Komunikazioetarako eta gainerako gorabeheretarako, epaimahaiak Arraia-Maeztuko Udalan izango du egoitza.

17.7. – Zerbitzuagatiko kalte-ordainak.

Epaimahaiko kideek zerbitzuagatiko kalte-ordainak jasoko dituzte, bertaratzeenak barne, gai horri buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

Era berean, epaimahaiari aholkularitza ematen dioten pertsonak edo epaimahaiari zaintza edo laguntza materiala ematen laguntzen diotenen kalte-ordainak jasoko dituzte.

18- Gorabeherak, aurkaratzeak.

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak ebazteko eta prozesua behar bezala eta era egokian garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian. Interesdunek deialdiaren, haren oinarrien eta haren eta Auzitegiaren jarduketan ondoriozko administrazio-egintza guztien aurka egin ahal izango dute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritako kasuetan eta moduan.

II. ERANSKINA

IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOA, 20/2021 LEGEAREN 6. eta 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOA eta UDAL LIBURUTEGIAREN KUDEAKETAREN ARDURADUNARI DAGOKIONA, C2 TALDEA, ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAREN LANBIDE-KATEGORIA

1. – Deitutako plazak.

UDAL LIBURUTEGIAREN KUDEAKETAREN ARDURADUNA izendapeneko, C2 taldekoa, lan-ituneko, administrari laguntzailearen lanbide-kategoria lanpostu baterako deialdia egiten da, txanda irekiaren bidez, honako banaketa honen arabera:

PLAZA KOPURUA

1

LOTUTAKO LANPOSTU KOPURUA

Udal liburutegiaren kudeaketaren arduraduna

C2 Taldea

Lan-ituneko

EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikook, etab.)

2.Hizkuntza eskakizuna, iraungitako derrigortasun-datarekin 08/11/2018an

Dedikazio partziala, 5 ordu astean 3 egunetan banatuta

Udal liburutegiaren ohiko kudeaketa

2– Parte hartzeko baldintzak.

2.1. – Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorarekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. – C2 taldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa honako hau da: 29,30 euro.

2.3. – Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, eskola-ziurtagiria edo baliokidea den titulazioa eskatzen da.

3. – Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.

3.1. – Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, 2. hizkuntza-eskakizunak bete beharko dira. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea eskatzen dute.

Betekizun hori oinarri orokorren 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko da.

4. – Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1.1. Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiak eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan puntuazioaren arabera ordenatutako instantzia-kopurua bakarrik baloratuko da.

Lehiaketa ez da baztertzaileria izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien % 25eko gutxieneko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretako 10.2 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.1.2. Bigarren zatia: euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzaileria, lotutako lanpostuak dituzten, 2. hizkuntza-eskakizuna duten eta nahitaezko izaera duten lanpostuak dituzten hautagaien zatia. Bestetik borondatezkoa eta ez baztertzaileria, 2. hizkuntza-eskakizuna ez duten lotutako lanpostuetarako lehiatzen direnentzat. Nolanahi ere, maila horri dagokion euskararen ezagutza zehaztea eta egiaztatzea izango da proba.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu behar. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaraz Arraia-Maetzuko Udalarri erregistro horretan egiaztatzea.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin behar da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa).

2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeko eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuestekoa), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu behar dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira onartuko.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimen-duen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du (I. eranskina).

5.2. Bigarren zatia gai edo ez-gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako hautagai diren pertsonentzat. Inolako hizkuntza-eskakizunik eskatzen ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa.

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu-poltsarik sortuko.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, C2 taldean emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako.

I. ERANSKINA.

MEREZIMENDUEN BAREMOAK

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) Esperientzia: gehienez 80 puntu.

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario-izaera edo lan-harremana.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Udal liburutegiko arduradunaren izenean, C2 taldean, edozein administrazio publikotan, Administrazio deitzailean barne, egindako zerbitzuengatik, 0,0165 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

a.2. Esperientzia espezifikoa:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, berezita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen administrazioan, liburutegi-arduraduna izenekoa, C2 taldean, lan egindako egun bakoitzeko 0,0055 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzalean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei:

b.1.- Informatikako ezagutzak.

Informatika-ezagutzak baloratuko dira, 20 puntu gehienez, eta 5 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzkoa.

– Oinarritzko Internet.

- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.

Moduluak gainditu izana IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren bertsio ezberdinak egiaztatzen badira, horietako bat bakarrik baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenak oinarrizko maila egiaztatutzat joko dira.

b.2. – Deitutako plazara sartzeko eskatzen dena baino goragoko prestakuntza akademikoko maila batean (1) dagokion titulua izateagatik, betiere titulazioak deitutako plazari lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorri gero: 10 puntu.

C2: Batxiler-titulua edo teknikari-titulua, edo baliokidea

b.3. Gidabaimen hauetakoren bat izateagatik, gehienez 10 puntu:

- B motako txartela: 2,5 puntu

III. ERANSKINA

IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, 20/2021 LEGEAREN 6. eta 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOA eta ZERBITZU ANITZETAKO LANGILEAREN IZENARI DAGOKIONA, C2 TALDEA, ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAREN LANBIDE-KATEGORIA

1. – Deitutako plazak.

ZERBITZU ANITZETAKO LANGILEAREN izendapeneko C2 taldekoa, lan-ituneko, administrari laguntzailearen lanbide-kategoria

lanpostu baterako deialdia egiten da, txanda irekiaren bidez, honako banaketa honen arabera:

PLAZA KOPURUA

1

LOTUTAKO LANPOSTU KOPURUA

Zerbitzu anitzeko langilea

C2 Taldea

Lan-ituneko

EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoa, etab.)

Hizkuntza eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe

B motako txartela.

Dedikazio osoa

Udal eraikin eta instalazioen mantentze, zaintza eta konponketarekin zerikusia duten guztiak.

Jakinarazpenak egitea.

2– Parte hartzeko baldintzak.

2.1. – Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. – C2 taldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa (deitutako plazena) honako hau da: 29,30 euro.

2.3. – Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, eskola-ziurtagiria edo baliokidea den titulazioa eskatzen da.

3. – Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.

- era berean, deialdi honen xede diren lanpostuei lotutako zenbait lanpostuk betekizun espezifikoa hauek ditu:

B motako txartela.

Betekizun horiek oinarri orokorren 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko dira.

4. – Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1.1. Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan puntuazioaren arabera ordenatutako instantzia-kopurua bakarrik baloratuko da.

Lehiaketa ez da baztertzaileria izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien % 25eko gutxieneko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretako 10.2 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.1.2. Bigarren zatia: euskara-proba: Borondatezkoa eta ez baztertzaileria, 1. hizkuntza-eskakizuna ez duten lotutako lanpostuetarako lehiatzen direnentzat. Nolanahi ere, maila horri dagokion euskararen ezagutza zehaztea eta egiaztatzea izango da proba.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Arraia-Maeztuko Udalarri erregistro horretan egiazta dezan.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin beharko da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa).

1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeko eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuestekoa), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira onartuko.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimen-duen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du (I. eranskina).

5.2. Bigarren zatia gai edo ez-gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako hautagai diren pertsonentzat. Inolako hizkuntza-eskakizunik eskatzen ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa.

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu-poltsarik sortuko.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, C2 taldean emakumeen azpiordezkaritarik ez dagoelako.

I. ERANSKINA.

MEREZIMENDUEN BAREMOAK

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) Esperientzia: gehienez 80 puntu.

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario-izaera edo lan-harremana.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Zerbitzu anitzeko langilearen izenean, C2 taldean, edozein administrazio publikotan, administrazio deitzailean barne, egindako zerbitzuengatik, 0,0165 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

a.2. Esperientzia espezifikoa:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, berezita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen administrazioan, zerbitzu anitzeko langilearen izeneko, C2 taldean, lan egindako egun bakoitzeko 0,0055 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei:

b.1. Erakunde ofizialetan jasotako prestakuntza (Herri Administra-zioko Eskola edo Institutuetan Herri Administrazioetan, Unibertsitateetan, Elkargo Profesionaletan, Mutualitateetan, Fundazioetan, Elkartean, Federazioetan) emandako edo homologatutako ikastaro-ordu bakoitzeko, 0,50 puntu, gehienez 20, betiere ikastaroak deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorri gero.

b.2.- Euskararen ezagutza.

Euskararen ezagutza baldintza ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da, derrigortasun-data igarota ez izateagatik, baremo honen arabera:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 4 puntu

IV. ERANSKINA

IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOA, 20/2021 LEGEAREN 6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOIA ETA GARBITZAILE IZENARI DAGOKIONA, LK TALDEA, MENDEKO LANBIDE-KATEGORIA

1. – Deitutako plazak.

GARBITZAILE izendapeneko, LK taldekoa, lan-ituneko, mendeko lanbide-kategoria lanpostu baterako deialdia egiten da, txanda irekiaren bidez, honako banaketa honen arabera:

PLAZA KOPURUA

1

LOTUTAKO LANPOSTU KOPURUA

Garbitzailea (LK)

Lan ituneko

EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoa, etab.)

1. Hizkuntza eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe

Dedikazio osoa

Oro har, udal-gelak eta udal-bulegoetako altzari eta instalazio guztiak garbitu eta desinfektatzea dagokie.

2– Parte hartzeko baldintzak.

2.1. – Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrekarekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. – LK taldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa honako hau da: 29,30 euro.

2.3. – Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, titulazio-eskakizunik gabeko lanbide-taldekatzeta da.

3. – Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.

Ez da aginduzkoa, ez da baldintza.

4. – Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1.1. Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan puntuazioaren arabera ordenatutako instantzia-kopurua bakarrik baloratuko da.

Lehiaketa ez da baztertzaileria izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien % 25eko gutxieneko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretako 10.2 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.1.2. Bigarren zatia: euskara-proba: borondatezkoa eta ez baztertzaileria, 1. hizkuntza-eskakizuna ez duten lotutako lanpostuetarako lehiatzen direnentzat. Nolanahi ere, maila horri dagokion euskararen ezagutza zehaztea eta egiaztatzea izango da proba.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu behar. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Arraia-Maeztuko Udalarri erregistro horretan egiaztatzea.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin behar da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa).

1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeko eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuestekoa), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu behar dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira onartuko.

5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimen-duen baremoaren arabera esleitutako puntu baturak zehaztuko du (I. eranskina).

5.2. Bigarren zatia gai edo ez-gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako hautagai diren pertsonentzat. Inolako hizkuntza-eskakizunik eskatzen ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa.

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu-poltsarik sortuko.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, LK taldean emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako.

I. ERANSKINA.

MEREZIMENDUEN BAREMOAK

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) Esperientzia: gehienez 80 puntu.

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario-izaera edo lan-harremana.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Garbitzailearen izenean, LK taldekoa, edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioa barne, 0,0165 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

a.2. Esperientzia espezifikoa:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen administrazioan garbitzailearen izenean, LK taldean, egindako zerbitzuengatik, barne, 0,0055 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei:

b.1. Erakunde ofizialetan jasotako prestakuntza (Herri Administra-zioko Eskola edo Institutuetan Herri Administrazioetan, Unibertsitateetan, Elkargo Profesioaletan, Mutualitateetan, Fundazioetan, Elkartetan, Federazioetan) emandako edo homologatutako ikastaro-ordu bakoitzeko, 0,034 puntu, gehienez 20, betiere ikastaroak deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorritik gero.

b.2.- Euskararen ezagutza.

Euskararen ezagutza baldintza ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da, derrigortasun-data igarota ez izateagatik, baremo honen arabera:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 4 puntu

b.3. Gidabaimen hauetakoren bat izateagatik, gehienez 10 puntu:

- B motako txartela: 2,5 puntu

Maeztu, 2022ko abenduaren 9a

Alkatea

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA